



ikastolak



PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA
ATARRABIA



Udaberria iristeko irrikaz eta gure kabikutxetan txoriak ikusteko zain

LH-KO 1. MAILAKO IKASLE ZEIN IRAKASLEEK KABIKUTXAK SORTU ETA JARRI DITUGU IKASTOLAKO HAINBAT ZUHAITZETAN ZEIN ULTZAMA PARKEAREN INGURUETAN

Testua eta argazkiak Paz de Ziganda Ikastola


Kabikutxak ikastolan jartzeko asmoa, orain urte batzuk jorratzen hasi zen; baina aurrean arte ez dugu martxan jarri. Gabi Berasategi izan dugu proiektu honen buru; Ornitolaneko kidea, hegaztietan aditua. Iruñerriko hainbat udalerrri eta beste eskola batzuk bezala, proiektu honen barruan sartzeak jarraipen bat izango du bere kudeaketari esker. Kabikutxak egin eta jarri ondoren, maiatzaren aldera okupatutako kutxen zenbaketa egingo dugu; alde batetik, hutsik daudenak lekuz aldatzeko, eta beste aldetik, okupatutakoak ikusi, txori motak ezagutu, kume kopurua zenbatu, eta hauei eratzuna ipiniko zaie.

Proiektu zabal honi esker, informazio guztia Aranzadik jaso eta egiten den informazio bilketa munduko edozein bazterretara zabal daiteke. Datorren neguruan, kabikutxen garbiketa eta leku aldaketa egingo da, eta Ikastolako lagunak haziz joango diren heinean, ikastolakide bihurtu diren hegazti hauen ezaugarri gehiago ezagutzen joango dira, ohiturak, elikadura, ezaugarri zientifikoak... beti ere hauenganako sentsibiltatea eta errespetua zabaltzea izango da helburua.

ELKARLANEAN ERAIKIZ

Zuhaitz handi eta zahar baten argazki polita ikusita hasi ginen goiz hura. Zuhaitz horiek, animalia askoren gordeleku izaten ohi dira, baina zoritxarrez, gure inguruan, horrelako zuhaitz gutxi ditugu.

Horrela hasi genuen Gabirekin goiz polit hura. Berehala, etxetik ekarritako bihurkina erabiltzeko aukera polita izan genuen, zuhaitz handien ordeztu, txorien kabikutxen erakitzaila izan baikinaren egun batez. Marraskia ongi ikusi, taldeka antolatu... Indar handia behar izan genuen, pazientzia pixka bat, desa-



Bihurkinak eskuetan, burubelarri elkarlanean ageri da lagun taldea.



Adi-adi guztiok Gabi Berasategiren azalpenak jarraituz.

dostasunak... baina tira!! Lehenengo mailan gaude eta egurra jarri, kendu, berriz lotu, orain teiltatua... lortu genuen!

Gela bakoitzean, 5 kabikutxa egin genituen. 15 guztira!! Gu bai txapel-dunak! Berehala nahi ditugu barruan amilotxak! Edo kaskabeltzak! Txolarreak ere, noski! Txori txikien gordeleku bikainak! Lina-za oloz busti, eta gainera, etxetik ekarritako tetra brik zatietan, negu hotzeko euriak busti gabe pasatzeko teiltatu jarri genien.

DENA PREST

Gabonak tarte, Gabi Ikastolara bueltatu eta bere jakinduria eta pazientzia amaigabearekin, banan-banan, makil luzearen puntan jarrita, zuhaitz aproposetan jarri zituen kabikutxak. Txoriei, goizean goiz esnatu, eta eguzkiaren berotxo sumatzea gustatzen zaie, horregatik Gabik lana izan zuen kabikutxa guztiak hegoalde edo ekialdera begira jartzen. Ikastola barruan sei kabikutxa jarri ondoren, beste bedera-

Gure leiho pareko izei handian kabikutxa bat dugu, egunero bi minutuz hortxe ibiltzen gara, txoririk sartu edo aterako den begiratzen

tzi jarri genituen Ikastola ondoko Ultzama parkearen inguruan. Aurreko urteetan ikastolako aita zen Alfonsok jarritako kabikutxak garbitu eta txoriek eraikitako kabi dotore eta landuak garbitu ondoren, kabikutxa berriz ere gora! Datorren udaberriko prest. Bi eta hiru metro bitartean jartzen ez badugu, edozein katuk atzaparra sartzeko aukera izango duela badakigu...

Eta Ikastolako bidean geundela, amilotx polit bat ikusi genuen etxetxo baten inguruan... gustatuko ote zaio?

Ikastolan gure leiho pareko izei handian kabikutxa bat dugu, egunero bi minutuz hortxe ibiltzen gara, zain... txoririk sartu edo aterako den begiratzen... eta maiatzaren 15-16 iritsiko irrikatan... guk jarritako kabikutxak ireki eta jaiotako txoritoak ikusi eta ezagutzeko.

Bitartean, Ikastolako lagunei zuhaitz inguruak zaintzeko eskatzen, txori gehiago bai, eta aldi berean, intsektu gutxiago izango ditugulako, dena abantailak izango dira. Lan bikaina lagunok!

Mila esker, Alfonso. ●


LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zenbat kabikutxa jarri dira eta non?
2. Zein da ekimen honen helburua?
3. Nork irakatsi zigun kabikutxak eraikitzen?

Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Ibai Verano (Ibaialde Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Markel Diez (San Frantzisko Eskola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena batez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.